

Kalitatea

- Zerbitzu onak hobetu egiten du zure enpresako kalitatea. Euskarak bezeroa, langileak eta ingurunea gustura uzten lagunduko dizu. Kalitatea gero eta gehiago ulertzen da euskaraz ere.

Bezeroak

- Gure gizartean gero eta euskaldun gehiago dagoela erakusten digu errealitateak; batez ere, belaunaldi berriei erreparatzen badiegu. Zure enpresako bezero eta hornitzaileen artean ere gero eta gehiago dira euskaraz dakitenak eta egiten dutenak. Eskain iezaiezu merezi duten zerbitzua euskaraz ere.

Legea

- Euskara, Euskal Herriko bertako hizkuntza izateaz gain, Euskadiko Komunitate Autonomoan ofiziala da gaztelaniarekin batera (10/1982 legea). Honetaz gain, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legeak (6/2003), 37. artikuluan, hizkuntzako eskubide hauek aitortzen dizkie kontsumitzaile eta erabiltzaileei:

- a) "Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzekoa."
- b) "Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzekoa; enpresa eta establezimendu hauek, bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia eman beharko diete."

Garrantzitsua da euskarak presentzia izatea gure herriko enpresa, komertzio, taberna zein bestelako erakundeetan, horrek baldintzatuko baitu bezeroa harremanetarako erabiliko duen hizkuntza aukeratzeko orduan. Denon erantzukizuna da euskarari dagokion tokia egitea gure gizartean.

BAITA MODUAK ERE HORI LORTZEKO

Udalaren laguntza-zerbitzuak

Lasarte-Oriako Udalak erraztu egin nahi dizu bidea. Horretarako, zerbitzu hauek eskaintzen dizkizu:

- Diru-laguntzak.
- Itzulpen-zerbitzua, testuen zuzenketak eta hizkuntzako aholkularitza.
- Zure negozioan euskararen erabilera normalizatzeko plan integralak.